

BASQUE CENTER FOR MACROMOLECULAR DESIGN AND ENGINEERING - POLYMAT FUNDAZIOA

Sozietatearen izena

Basque Center for Macromolecular Design and Engineering - Polymat Fundazioa.

IFK

G75067454

Izaera

Fundazioa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Ez da aplikatzekoa.

Sorrera

Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta 2012ko apirilaren 25ean eratu zen eskritura publiko bidez. Fundazioen Erregistroan inskribatu zen fundazioa [Basque Center for Macromolecular Design and Engineering – Polymat Fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko Justizia eta Herri Administrazioako sailburuaren 2012ko ekainaren 29ko AGINDUA](#) betez.

Sail-atxikipena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

EJSN

7219 Beste ikerketa eta garapen esperimental bat natura- eta teknika-zientzietan.

Fundazioaren xedea eta helburua

Neurozientziaren alorrean oinarritzko eta bideratutako ikerketako bikaintasun-zentro bat eratzea eta sendotzea da fundazioaren helburua, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta eremu horretan Estatuan zein nazioartean diharduten ikerketa-zentro nagusiekin elkarlanean, gizartearen interesekin bat etorritik, gizartearen garapenaren eta ongizatearen alde eginez eta nazioarteko zientzia-aurrerapena ahalbidetuz.

Sailkapena kontabilitate nazionalen


Sozietate ez-finantzarioak.

Fundazio-zuzkidura

200.000 €

Fundazio-zuzkiduraren osaera

Ikerbasque fundazioa	% 85,00
EHU	% 15,00



Patronatua

Patronatua fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkartzarako organo gorena da, eta bere kontu izango ditu fundazioaren helburuak gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketaren gidaritza eta kontroleko eskumen guztiak. Zehazki, fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak kudeatuko ditu. Honako hauek dira 2012ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Patronatuko kideak:

Itziar Alkorta Idiakez andrea	Presidentea. Ikerbasque fundazioa.
Fernando Plazaola Muguruza jauna	Presidenteordea. EHU.
Amaia Maseda García andrea	Idazkaria. EHU.
Fernando Cossío Mora jauna.	Ikerbasque fundazioa.

2012ko ekitaldiko urteko kontuak

[2012ko abenduaren 31ko urteko kontu laburtuei eta auditoriari buruzko txostena.](#)

2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	2.299.719 €
Ondare garbia	2.097.697 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	0 €
Batez besteko langile-kopurua	6,13

Sozietatearen helbidea

Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea, Bizkaiko campusa, Sarriena auzoa z./g., 20018 Leioa (Bizkaia).

Webgunea

www.polymat.eu